

# **EAeko enplegu-politika aktiboen transferentziari buruzko txostena**

**Hausnarketarako agiriak**

ELAren Azterketa Bulegoa

2010.eko urria



# **Enplegu-politika aktiboen transferentzia**

## **ELAREN AZTERKETA BULEGOA**

1. Enplegu-politikaren transferentzia egiteko akordioari buruz iritzia emateko zer hartu behar da aintzat? .....	3
2. Enplegu-politika aktiboak eskualdatuko dira? .....	3
3. Akordioak Eusko Jaurlaritzari politika aktiboen arloan erabakitzeko ahalmena ematen al dio? .....	4
4. Langileok enplegu eta prestakuntzarako ordaintzen ditugun kotizazioak kudeatuko al dira? .....	4
5. Zer gertatuko da EAEn ordaintzen ditugun kotizazioekin? .....	4
6. Eskuduntzak urtean 472 milioi dakartza. Kopurua nahikoa al da? .....	5
7. Langabezi-prestazioen kudeaketa eskualdatu da? .....	6
8. Parte hartza bideratu al da negoziatzeko prozesuan? .....	6
9. 31 urte igarota eskudunza bat jasotzearen prezioa aurrekontu antisozial batzuk onestea da? .....	6
10. Nor poztuko da? .....	6
Ondorioak .....	8

Irailaren 22an EAJk eta PSOEk akordioa itxi zuten Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) lan, enplegu eta lanbide heziketako hainbat gai eskualdatzeko.

Akordioaren edukiak aztertu ditu ELAk eta bere eritzia eman haunaskerta politikorako lagungarri izan dadin.

## **1. Enplegu-politikaren transferentzia egiteko akordioari buruz iritzia emateko zer hartu behar da aintzat?**

Irailaren 22an EAJk eta PSOEk akordioa itxi zuten Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) lan, enplegu eta lanbide heziketako hainbat gai eskualdatzeko.

Akordioari buruzko iritzia ematerakoan edukiari begiratu behar zaio, eta horren inguruan ezkutukeria izan da nagusi. Hasieran ez zen inolako informaziorik eman, eta aurrerago, oso zatika. Akordioaz eta bere garrantziaz hitz egin ordez, sinatzaileen kezka bakarra irudikanpaina bat egitea izan da, nork bere jarrera indartu eta beste alderdia nabarmen uzte aldera.

ELAk testua taxuz irakurtzea eskatzen du. Hitzartutakoa ez da hobea edo okerragoa Patxi Lopezen gobernu jokoz kanpo geratu delako, Espainiako gobernuak akordio bat EAEko oposizioko alderdi batekin sinatuta, eta ez Jaurlaritzarekin. PPREn kritikak ere –akordioari gaitz guztien jatorri izatea egozten dio– ez du edukia hobea egiten.

ELAk benetan zer hitzartu den aztertu nahi du ondoren, edukiari buruzko iritzi politiko bat eman ahal dadin.

## **2. Enplegu-politika aktiboak eskualdatuko dira?**

Ez. Enplegu-politikak benetan eskualdatzeko beroiei buruzko irizpideak finkatzeko ahalmena beharko litzateke. Alabaina, beste zerbait adostu dute: orain arte Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (EEZP, INEM izenez ezaguna) bere gain zituen hainbat egiteko EAEko administrazioaren esku uztea; alde handia dago batetik bestera. Akordioak dezentralizatze hutsa dakar, eta eskualdatzen diren funtziek kudeaketa beste edukirik ez dute.

Enpleguaren Lege Nazionalaren arabera –oinarrizko lege hau administrazio guztiak bete beharrekoa da– Espainiako Gobernuari dagokio gai jakin batzuri buruz –bitartekaritza laborala, enpleguaren sustapena, langabeen eta langileen lanbide-heziketa– legeak egitea eta araudiak erabakitzea. Erabakiak hartuta, hauek kudeatzeko egitekoa hainbat erakunderi ematen zaie, besteak beste Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari, eta honek ez dauka erabakitzeko ahalmenik.

Akordioaren izena bera, “Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak legedi laborala lana, enplegua eta enplegurako prestakuntzaren arloetan bere gain dituen betearazte-egitekoak

eta -zerbitzuak eskualdatzeko akordioa”, argigarria da. Begibistakoa da ez dagokiola emplegu-politika aktiboei, hauek Spainiako gobernuaren esku baitiraute; aipatzen diren egiteko bakarrak estatuko legedi laborala betearaztearen ingurukoak dira.

### **3. Akordioak Eusko Jaurlaritzari politika aktiboen arloan erabakitzeko ahalmena ematen al dio?**

Ez. Eusko Jaurlaritzak emplegu-politika aktiboetan ez du erabakitzeko ahalmen bat ere izango. Hitzartutakoa aurreko puntuau jasota dago.

Gainera, akordioa gauzatzerakoan atalez atal hainbat muga ezartzen dira (“gai honen inguruko lan legediaren arabera”, “estatuko legeek ezartzen dutenaren baitan”, etab.) edota eskualdatutako zerbitzuak administrazio-erregistro huts gisan uzten ditu (hauxe da lan-merkatuko bitartekaritzaren kasua: eskuduntzaren funtsa kontratuak eta langabeak erregistratzeko soila da).

Horrenbestez, eta Gernikako Estatutuan izaera berezia aipatzen den arren, EAErako eskualdatzen dena, erabakitzeko ahalmenari dagokionez, beste autonomi-erkidegoek zeukatena da, ez gehiago. Beraz, ELAren ustez hitzarmen honen ostean EAE areago izango da Spainia.

Komunikabideek nabarmendu dute kontratatzeko pizgarrien kudeaketa hitzartu dela, hain zuzen kuota sozialen hobariak. Hau egia da, baina eskuduntzen aldetik ez dauka eragin handiegirik, estatuko legeak aplikatu beharra baitago.

Arlo honetan eskuduntzak onartzea, baina emplegu-politikei buruz erabakitzeko ahalmenik gabe, oso erabaki politiko larria da. Autogobernuari dagokionez puntu garrantzitsu bat uko egiten zaio, eta hau ezin onartuzkoa da. Are okerragoa kontutan izanik espaniar estatuko emplegu-politikak porrot egin duela: hor ditugu langabezia, prekaritatea eta laneko istripu tasa handiak. Esparru horretan ezarritako irizpideak jarraitzen behartzea zigor bikoitza da, hortaz.

### **4. Langileok emplegu eta prestakuntzarako ordaintzen ditugun kotizazioak kudeatuko al dira?**

Ez. Gure soldataren %0,7 lanbide heziketarako kotizatzen dugu. EAEk kotizazio hauek biltzeko eskubidea dauka. Ekonomi-Itunaren printzipioaren arabera, zergak bezala, kotizazioak ere berton bildu behar dira.

Halere, akordioak eskuduntzetan uko egite handia dakar, EAEn honetarako ordaintzen dugun dirua aurrerantzean ere Spainiako gobernuak bilduko baitu, Gizarte-Segurantzaren bitartez. Honek Ekonomi-Itunaren printzipioa urratzen du.

## **5. Zer gertatuko da EAEn ordaintzen ditugun kotizazioekin?**

Akordioaren arabera, kasurik hoberenean espainiar estatuan kotizazio horiekin biltzen den diruaren %6,24 jarriko da Jaurlaritzaren esku. EAeko langileek kotizatutakoa estatuan biltzen den diruaren portzentaje handiagoa izan ohi da, baina hitzartutakoaren ondorioz EAEn geratuko dena kopuru osoaren zati bat bakarrik izango da; horrek galera ekonomikoa esan nahi du.

Beraz, kotizazioak biltzeko zor zaigun eskubideari uko egiten diote, eta ez zaio Espainiako gobernuari konpromisorik eskatzen, Jaurlaritzari kotizazio hauetarako Gizarte-Segurantzako diruzaintzak jaso eta kudeatzen duen kopurua helaraz diezaion.

Gainera, akordioak ez du %6,24a ere bermatzen. Hau dio testuak hitzez hitz: “Ia, enplegu eta lanbide-heziketaren esparruko programa eta eginbide publikoen kostua finantzatzeko (...) EAEk urtero bere esku izango du estatu mailako guztirako kostuaren gaineko (...) urte bakoitzerako kupoa kalkulatzeko erabiltzen den inputazio-indizeari dagokion portzentajea...”. “Urtero” eta “urte bakoitzeko” adierazpideak sartuta litekeena da azkenean Jaurlaritzari eskualdatu beharreko kopurua Espainiako gobernuak hartutako alde bakarreko erabakiaren baitan geratzea.

Hartara, akordioak EAERi ukatu egiten dio zor zaion finantzazioa. Hau ere autogobernuari dagokionez atzerakada latza da. Politikaren ikuspegitik ez da gauza bera, inondik ere, baliabide batzuk zuzenean kudeatzea edota urtez urte espainiar estatuak erabakitzuen duenaren menpe egotea.

## **6. Eskuduntzak urtean 472 milioi dakartza. Kopurua nahikoa al da?**

Lehenik esan beharra dago 472 milioiko kopuru hori ez dela aipatzen ezagutzera eman duten akordioan.

Eskuduntzarekin “lortuko” den diru kopuruaz eztabaidea birtual bat egiten saiatu dira, baina jokoan dagoena finantza-fluxu bat baino askoz gehiago da.

Eusko Jaurlaritzak Espainiako gobernuarekin hitzartuta zeukanak 300 bat milioi euroko balio omen zuen. Demagun bai kopuru hau, bai 472 milioiak zuzenak direla; kontuak egingo ditugu. Jaurlaritzaren lehen akordioak ez zituen enpresentzako hobariak jasotzen, lehenago esan dugun legez. EAJren akordioak hobari horiek sartu ditu, eta hortik dator 172 milioiko aldea. Jaurlaritzak Gizarte-Segurantzari EAEn emandako hobari guztiak ordaindu behar dizkio, baina Espainiako gobernuak kupoari dagozkien hobarien %6,24 besterik ez ditu itzuliko (177 milioi). EAEn emandako hobarien kopurua zehatz ezagutzen ez dugun arren, badakigu 177 milioitik gora direla; ondorioz, Eusko Jaurlaritzak finantza-galera jasango du. Bestalde, aipatu behar da kotizazioen gaineko hobari hutsak direla, eta mundu guztiak aitorzen du honek ez duela lanposturik sortzen.

Ondorioz, akordioa finantza aldetik txarra da: berez dagozkigun baliabideei (gizarte-kotizazioei) uko egiten die, eta enpresen hobariak kudeatzerakoan galera ekonomikoa dakar.

## **7. Langabezi-prestazioen kudeaketa eskualdatu da?**

Ez. Akordioan uko egiten diote honi ere, hots, enplegu-politika pasiboen kudeaketari (langabezia-kotizazio eta -prestazioak). Puntu honekiko arrestian aipatutako Enpleguaren Legea argia da: “Nolanahi ere Gobernuari dagokio, Lan eta Gizarte-Gaien Ministerioaren bitartez, langabezia-prestazioak kudeatu eta kontrolatzea”.

## **8. Parte hartza bideratu al da negoziatzeko prozesuan?**

Ez. ELAk ez du honen beririk izan, eta ez diote konsultarik egin ez Jaurlaritzak, ez EAJk Espainiako gobernuarekin egin dituzten negoziazioetan.

Ezin da onartu, ikuspuntu demokratiko batetik, langile-klaseak erabakitako ordezkaritza maila handia dugun erakunde sindikalak baztertu izana enplegu-politiken eskualdatzeari buruzko eztabaidea honetan. Gai honek langileontzat berebiziko garrantzia du, eta honi buruz sindikatuok zer esana badugu.

Noski, negoziazio prozesu ilun honi ekin ziotenek ondo asko zekiten informaziorik ez zabaltzean zertan ari ziren.

## **9. 31 urte igarota eskuduntza bat jasotzearen prezioa aurrekontu antisozial batzuk onestea da?**

EAJk eta PSOEk hitzartu dutena itun orokor baten atala da; honen arabera, EAJk 2011ko Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartuko dituela agintzen du. Hain zuzen, testuak honakoa dio: “Estatuko Aurrekontu Orokoren negoziazioaren baitan akordio hau itxi dute, eta hemen jasota dagoen moduan erantsiko zaio aurrekontuei buruzko akordioak bilduko dituen behin betiko agiriari”.

Aurrekontuok azken urteotako antisozialenak dira, %7,7ko jaitsierarekin. Adibidez, pentsioak datorren urtean izoztu egingo dituztela diote. Honela EAJk –CiUrekin batera erreforma laborala aurrera ateratzea posible egin zuenak– Espainiako gobernuarekin bat egiten du, hots, Europako Batasunean politikarik neoliberalena daramaten gobernuen artean aitzindari denarekin.

Eskuineko politika honi ez zaio inongo babesik eman behar. Eta are gutxiago zuritu eskuduntza ustel bat lortu delako arrakastarekin.

## **10. Nor poztuko da?**

Eusko Jaurlaritzak, Confebask patronalak eta CCOO zein UGTk Gizarte-Elkarizketarako Mahaia izenekoa eratu zuten. Mahaiaik lau helburu ditu:

1. Murrizte politikei babes ematea, erabakiak eragileen artean hitzartuta hartzen direlako itxura eginez.
2. Babes ematea Lopezen gobernuak hartutako erabakiari: gehiengo sindikalari politikei buruzko kontsultarik ez egitea; areago, parte hartzen genueneko lan-batzordeak desagerrarazi ditu.
3. Erakundeetan ELAri eta LABi dagokien ordezkaritza usurpatzea.
4. EAEra enplegu-politika porrot egin duen eredu espanola hedatzea, berton arautzeko aukera oro galaraztearekin batera.

EAEko gizarte-elkarizketak erdi ilunpean egin izan du bere bidea, baina erakundeek murrizte antisozial larriak ezartzen jarraitu dute.

Eskudunzia EAERatzeko akordioa plazaratu bezain pronto eragile batzuk “oso pozik” agertu dira, enplegu eta prestakuntzako funtsak kudeatzeko aukera izango baitute. Eta zalantzarik gabe, prestakuntzan eta lan-osasunean gertatzen den bezalaxe, beren buruekin oso eskuzabal jokatuko dute diru publikoa erruz banatzerakoan; horrek ordea ez du esan nahi enpleguaren egoera hobetuko denik.

**En torno a**  
**la transferencia a la CAPV**  
**de las políticas activas**  
**de empleo**

**Elementos para la reflexión**

Gabinete de Estudios de ELA

Octubre de 2010



# **Transferencia de las políticas activas**

GABINETE DE ESTUDIOS DE ELA

1. ¿Qué hay que tener en cuenta para valorar el acuerdo de transferencias de empleo? .....	3
2. ¿Se han transferido las políticas activas de empleo? .....	3
3. ¿El acuerdo da capacidad de decisión al Gobierno vasco en materia de políticas activas? .....	4
4. ¿Se gestionan las cotizaciones sociales que pagamos los trabajadores y trabajadoras para empleo y formación? .....	5
5. ¿Qué va a pasar con las cotizaciones que pagamos en la CAPV? .....	5
6. La transferencia se ha cifrado en 472 millones al año. ¿Es una cantidad satisfactoria? .....	6
7. ¿Se ha traspasado la gestión de las prestaciones por desempleo? .....	6
8. ¿Ha sido un proceso participativo? .....	6
9. ¿Hay que aceptar aprobar unos presupuestos antisociales para recibir una transferencia tras 31 años? .....	7
10. ¿Quiénes se frotan las manos? .....	7
Conclusiones .....	8

El PNV y el PSOE llegaron el 22 de septiembre a un acuerdo para traspasar a la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV) diversas materias de trabajo, empleo y formación profesional.

ELA quiere analizar el contenido de lo acordado y ayudar con esta opinión a un juicio político sobre el mismo.

## **1. ¿Qué hay que tener en cuenta para valorar el acuerdo de transferencias de empleo?**

El PNV y el PSOE llegaron el 22 de septiembre a un acuerdo para traspasar a la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV) diversas materias de trabajo, empleo y formación profesional.

La valoración de este acuerdo se tiene que basar en su contenido, respecto al que ha habido mucho oscurantismo. En un principio no se dio a conocer nada respecto al mismo. Y posteriormente la información se ha dado de forma parcial. En lugar de hablar del propio acuerdo y su alcance, los firmantes se han embarcado en una campaña de imagen, tratando de utilizar lo firmado para fortalecer las posiciones partidistas de cada uno y para deslegitimar así al contrario.

ELA exige rigor a la hora de valorar el texto. El acuerdo no es mejor ni peor porque el gobierno de Patxi López haya quedado en fuera de juego porque el Gobierno español haya cerrado un traspaso de competencias con un partido de la oposición en la CAPV en lugar de hacerlo con el Gobierno vasco. Tampoco las críticas del PP, atribuyendo todo tipo de males fuera de la realidad, mejoran los contenidos reales.

Vamos a ver realmente qué se ha acordado.

## **2. ¿Se han transferido las políticas activas de empleo?**

No. Transferir las políticas de empleo supondría tener capacidad de fijar los criterios que rigen las mismas. Sin embargo, lo que se ha hecho es acordar la transferencia de una serie de funciones que hasta ahora se desarrollaban por el Servicio Público de Empleo Estatal (SPEE, conocido como INEM). La diferencia es muy importante. El acuerdo supone una mera descentralización, traspasando funciones de mera gestión.

Según la Ley Nacional de Empleo, ley básica que, obliga a todas las administraciones, la elaboración de las leyes y la aprobación de las disposiciones reglamentarias en materias tales como la intermediación laboral, el fomento del empleo o la formación profesional ocupacional y continua corresponden al Gobierno español. Una vez tomadas las decisiones, la gestión de las mismas se encarga a distintos entes, entre los que se encuentra el Servicio Público de Empleo Estatal, que carece de capacidad de decisión.

El propio título del acuerdo, “Acuerdo sobre traspaso de funciones y servicios...en materia de ejecución de la legislación laboral en el ámbito del trabajo, el empleo y la formación para el empleo, que realiza el Servicio Público de Empleo Estatal”, clarifica esta cuestión. Es evidente que no se refiere a las políticas activas de empleo, que siguen estando en manos del Gobierno español, sino que se circunscribe a meras funciones de ejecución de la legislación laboral estatal.

### **3. ¿El acuerdo da capacidad de decisión al Gobierno vasco en materia de políticas activas?**

No. El Gobierno vasco no va a tener ninguna capacidad de decisión en relación a las políticas activas de empleo. El acuerdo se circunscribe a lo comentado en el punto anterior.

Además, la concreción del acuerdo en sus distintos apartados está plagada de limitaciones (“de acuerdo con la legislación laboral sobre la materia”, “en los términos que establezca la legislación estatal”, etc.) o bien deja a los servicios transferidos como meros registros administrativos (como en el caso de la intermediación laboral, donde las competencias son apenas el registro de los contratos y de las personas en desempleo).

De este modo, y a pesar del tan comentado hecho diferencial recogido en el Estatuto de Gernika, en la práctica la transferencia acordada para la CAPV se realiza, desde la perspectiva de la capacidad de decisión, en los mismos términos que la ya efectuada al resto de las Comunidades Autónomas. Por tanto, se puede afirmar que con este acuerdo la CAPV es más España.

Los medios de comunicación han hecho énfasis en que se ha acordado la gestión de los incentivos a la contratación, en concreto las bonificaciones de las cuotas sociales. Esto, que es verdad, desde un punto de vista competencial no tiene mayor incidencia, ya que se debe aplicar la legislación estatal. Además, cabe señalar que se trata simplemente de bonificaciones en las cotizaciones, que, como todo el mundo reconoce, no suponen creación de empleo.

Aceptar una transferencia en esta materia sin capacidad de decisión sobre las políticas de empleo es un hecho de enorme gravedad política. Supone una dejación inaceptable en materia de autogobierno. Ello es aún peor si tenemos en cuenta que las políticas de empleo seguidas en el estado español son un gran fracaso, como se constata con los elevados niveles de paro, precariedad y siniestralidad laboral. Condenarnos a seguir las directrices establecidas en ese ámbito es, por tanto, un doble castigo.

#### **4. ¿Se gestionan las cotizaciones sociales que pagamos los trabajadores y trabajadoras para empleo y formación?**

Un 0,7% de nuestro salario va destinado a cotizar para la formación profesional. La CAPV tiene derecho a recaudar estas cotizaciones. El principio del Concierto Económico conlleva que, al igual que ocurre con los impuestos, las cotizaciones deben recaudarse aquí.

Sin embargo, el acuerdo supone una dejación competencial importante, ya que el dinero que pagamos en la CAPV para esta contingencia lo va a seguir recaudando el Gobierno español a través de la Seguridad Social. Esto supone un incumplimiento del principio del Concierto Económico.

#### **5. ¿Qué va a pasar con las cotizaciones que pagamos en la CAPV?**

Según el acuerdo, y en el mejor de los casos, se va a traspasar al Gobierno vasco el 6,24% del total de lo que se recauda en el estado español por estas cotizaciones. El peso de las cotizaciones de los trabajadores y trabajadoras de la CAPV sobre el total generado en el estado viene siendo superior a ese porcentaje, pero solo una parte de las cotizaciones sociales que pagamos se va a quedar en la CAPV, lo que supone una clara pérdida económica.

Es decir, se renuncia a la recaudación de las cotizaciones a las que tenemos derecho, y ni siquiera se exige el compromiso de que el Gobierno español traslade al Gobierno vasco el equivalente a la recaudación que por estas cotizaciones gestiona la Tesorería de la Seguridad Social.

Además, el acuerdo ni siquiera garantiza el 6,24%. Se dice textualmente que “para la financiación del coste asociado a los programas y actuaciones públicas en el ámbito del trabajo, empleo y la formación profesional...la CAPV dispondrá anualmente del porcentaje correspondiente al índice de imputación utilizado cada año para el cálculo del cupo...del coste total anual a nivel estatal...”. Al introducir las palabras “anualmente” (el subrayado es del propio acuerdo) y “cada año” se puede dar pie a que al final la cantidad a traspasar al Gobierno vasco quede a expensas de la decisión unilateral que tome el Gobierno español cada año.

En definitiva, el acuerdo supone negar a la CAPV la financiación a la que se tiene derecho. Esto también supone una grave involución en materia de autogobierno. Políticamente no es lo mismo, ni mucho menos, gestionar directamente unos recursos o quedar a expensas de lo que cada año decida el estado español.

## **6. La transferencia se ha cifrado en 472 millones al año. ¿Es una cantidad satisfactoria?**

En primer lugar hay que decir que la cifra de 472 millones no está recogida en el acuerdo que se ha hecho público.

Se ha tratado de hacer un debate virtual sobre la cantidad de dinero que se “consigue” con la transferencia, cuando en realidad la importancia de la transferencia va mucho más allá de un determinado flujo financiero.

Se dice que el Gobierno vasco tenía un acuerdo con el Gobierno español valorado en unos 300 millones de euros. Demos credibilidad a esta cifra y a los 472 millones y hagamos cuentas. El acuerdo del Gobierno vasco no recogía las bonificaciones empresariales, como hemos comentado. El acuerdo del PNV sí lo hace, y eso explica los 172 millones de diferencia. El Gobierno vasco queda obligado a pagar a la Seguridad Social el total de las bonificaciones concedidas en la CAPV, mientras que en el Cupo el Gobierno español solo le dará al Gobierno vasco el 6,24% del total de las bonificaciones de todo el estado (recibirá 177 millones). Al ser esta cifra inferior al montante de las bonificaciones, el Gobierno vasco va tener una pérdida financiera.

En consecuencia el acuerdo en materia de financiación es malo: acepta la renuncia a recursos que nos son propios (las cotizaciones sociales) y conlleva una pérdida económica en la gestión de las bonificaciones a las empresas.

## **7. ¿Se ha traspasado la gestión de las prestaciones por desempleo?**

No. El acuerdo supone también la renuncia a la gestión de las denominadas políticas pasivas, que son las cotizaciones y las prestaciones por desempleo. En este punto la anteriormente citada Ley de Empleo es clara: “En cualquier caso corresponde al Gobierno, a través del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, la gestión y control de las prestaciones por desempleo”.

## **8. ¿Ha sido un proceso participativo?**

No. ELA no ha recibido ninguna información ni ha sido consultada en los procesos de negociación llevados a cabo por el Gobierno vasco y el PNV con el Gobierno español.

Es inaceptable, desde una perspectiva democrática, que organizaciones sindicales con una alta representatividad, otorgada por la clase trabajadora, hayamos sido marginadas del debate sobre la transferencia de las políticas de empleo. Este es un tema de vital importancia para las trabajadoras y trabajadores, un tema sobre el que los sindicatos tenemos mucho que decir.

Sin duda alguna, quienes han puesto en práctica un diseño de negociación opaco han sido plenamente conscientes de su decisión de no dar ninguna información.

## **9. ¿Hay que aceptar aprobar unos presupuestos antisociales para recibir una transferencia tras 31 años?**

El acuerdo entre el PNV y el PSOE se sitúa dentro de un pacto más amplio, según el cual el PNV se compromete a la aprobación de los presupuestos generales del Estado para 2011. En concreto se recoge que “en el marco de la negociación de los Presupuestos Generales del Estado han llegado al siguiente acuerdo, que se incorporará en los términos aquí firmados al documento definitivo que contenga el conjunto de los acuerdos presupuestarios.”

Estos presupuestos, con un recorte del 7,7%, son los más antisociales de los últimos años. Por ejemplo, recogen que las pensiones se van a congelar el año que viene. Así, el PNV, socio que, junto a CIU, permitió aprobar la reforma laboral, se alinea con el Gobierno español, que está a la cabeza de los gobiernos con una práctica más neoliberal de la Unión Europea.

En ningún caso se debe dar cobertura a esta política de derechas. Y, desde luego, la explicación de ello no radicará en el “éxito” de obtener una competencia averiada.

## **10. ¿Quiénes se frotan las manos?**

El Gobierno vasco, la patronal Confebask y CCOO y UGT pusieron en marcha la denominada Mesa del Diálogo Social. Esta Mesa pretende cuatro objetivos:

1. Dar cobertura a las políticas de ajuste, dando la impresión de que las decisiones se toman de manera acordada entre los distintos agentes
2. Dar cobertura a la decisión del Gobierno de López de no consultar las políticas con la mayoría sindical
3. Usurpar la representatividad de ELA y LAB en la participación institucional
4. Extender a la CAPV el fracasado modelo español de las políticas de empleo.

El diálogo social en la CAPV se ha venido desarrollando con más pena que gloria, a la vez que desde las diversas instituciones se han seguido aplicando graves ajustes antisociales.

Nada más hacerse público el acuerdo de transferencias diversas voces de los firmantes se han “felicitado” de dicho acuerdo, ya que les va a permitir gestionar los fondos en materias de empleo y formación. Y, como está ocurriendo en formación continua o salud laboral, no cabe duda de que van a ser muy generosos consigo mismos a la hora de decidir a quién asignar ingentes cantidades de dinero público, sin que ello repercuta en mejoras de ningún tipo en el empleo.

## **Conclusiones**

ELA reclama que la capacidad de decisión en materia de políticas de empleo esté en manos de las instituciones vascas. Es parte de lo que denominamos Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social. Y ello lo hacemos tanto por reivindicar el autogobierno como porque está constatado el fracaso del modelo de las políticas de empleo aplicadas en el estado español.

El acuerdo alcanzado entre el PNV y el Gobierno español supone:

1. Una grave renuncia política. Ningún Gobierno vasco se había atrevido hasta ahora a aceptar una transferencia que:
  - Niega a la CAPV su capacidad de decisión sobre las políticas de empleo a aplicar. El Gobierno vasco queda supeditado a ser un mero agente gestor y colaborador de las políticas decididas en el Estado español.
  - Renuncia a una financiación acorde a los criterios del Concierto Económico, conllevando una pérdida económica considerable.
  - Separa la gestión de las políticas activas y de las políticas pasivas.
2. Llevar a cabo un acuerdo por un procedimiento inaceptable: sin información ni transparencia, supeditando el supuesto cumplimiento del Estatuto en esta materia a que el PNV sea el socio necesario para aprobar todas las políticas de ajuste que el gobierno de Zapatero está llevando a cabo y las que pretende imponer en el futuro.
3. Pretender hacer creer a la población de que el Estatuto está vigente, cuando es evidente que la ola centralizadora que ha impulsado el Gobierno español imposibilita compatibilizar el actual marco jurídico con unas políticas propias de empleo.
4. Cometer un fraude los intereses de quienes queremos unas políticas de empleo propias, encaminadas al pleno empleo de calidad y a llevar a cabo un diseño de políticas formativas pegado a las necesidades reales de nuestro país.

## **Ondorioak**

ELAk aldarrikatzen du enplegu-politikei buruz erabakitzeko ahalmena euskal erakundeen esku egon behar duela. Lan-Harremanen eta Gizarte-Babesaren euskal esparruaren atal bat dugu hau. Batetik, autogobernuaren aldeko garelako, eta bestetik, espainiar estatuan aplikatu den enplegu-politikak porrot egin duela argi dagoelako.

EAJk eta Espainiako gobernuak itxi duten akordioak honako ondorioak ditu:

1. Politikari dagokionez, eskubide bati uko egiten dio, modu larrian. Orain arte Jaurlaritza batek ere ez zuen onartu honelako eskuduntzarik:
  - EAERi ukatu egiten dio enplegu-politikak erabakitzeko ahalmena. Eusko Jaurlartzaren egitekoa murriztuta geratzen da, espainiar estatuan erabakitako politikak kudeatu eta gauzatzen dituen eragile huts gisa.
  - Ekonomi-Ituneko irizpideen araberako finantzazioari uko egiten dio; honek galera ekonomiko handia dakar.
  - Enplegu-politika aktiboak eta pasiboak kudeatzerakoan bereizi egiten ditu.
2. Akordioa egiteko prozedura ezin onartuzkoa da: ez dute informaziorik eman, ezkutuan garatu da, eta gai honetan Estatutua beteko bada EAJ beharrezko lankide bilakatzen da Zapateroren gobernua egiten ari den murrizte politiketan, baita etorkizun direnetan ere.
3. Herritarrei sinestarazi nahi izatea Estatutuak nolabaiteko aukerarik ematen duela; ELAREN irudiko, berriz, espainiar estatuaen ikuspegi neozentralista -orain PSOERen txanda da- soilik autogobernuaren ikuskera murriztaile batekin batera daiteke: eskudunzei uko egin behar zaie. Hauxe da, hain zuzen, akordioaren esanahia: berton erabakitako enplegu-politikak ezinezkoak dira.
4. Iruzur egitea bertoko enplegu-politikak nahi ditugunon interesekiko; politika horien xedea enplegu betea, kalitatezkoa izan behar da, eta gure herriko benetako beharrizanei egokitutako prestakuntza bideratzea.